

# Folk musikaren erakusleihoa Ermuan



**NEMON, FLIPIN FOLK ETA NEHALENNIA DIRA ERMUAN GAUR EGUN ARI DIREN FOLK TALDEAK. OINARRIAN FOLKA IZANIK MUSIKA EZBERDINEN FUSIOA EGITEN DUTEN TALDEAK DIRA HIRURAK. NELAHENNIA DA BETERANOENA, 8 URTEKO IBILBIDEA EGINA DU, NAHIZ ETA TARTEAN HAINBAT ALDAKETA IZAN DITUEN. FLIPIN FOLK DUELA 3 URTE SORTU ZEN ETA NEMONEK URTEBETE ESKAS DARAMA TALDE GISA. 15 URTETIK 42 URTERA BITARTEKO KIDEEK OSATZEN DITUZTE TALDE HAUEK. BATZUEKIN IZAN GINEN SOLASEAN, TARTEAN, EIBARKO ADUNIA FOLK TALDEKO KIDE BAT ERE, GUREKIN ARITU ZEN EUREN PROIEKTUEI BURUZKO NONDIK NORAKOAK AZALTZEN.**

*-Folkari buruz ezer ez dakien bati, zer esaten diozue?*

**Nemon:** Folk musika entzun dezala. Askotan arlo oso estuarekin erlazionatzen da eta oso irekia izateaz gain, azken urteetan sormen handia dagoen esparrua da. Leku ezberdinetako folk musika entzutean, guztien artean dauden loturez ohartzen zara. Herri ezberdinetako folk musikek euren artean dituzten ezaugarri komunak asko direla konturatzen zara.

**Adunia:** Horrez gain, berpiztu dadila nahi dugu, aukera anitz daudelako. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu folk-ak beste musika batzuekin nahasteko dituen aukerak, irlandar, euskaldun, gailego, marrokiar, Errumaniako folk musikekin esaterako. Berez, herri baten identitatea izateaz gain, folk-ak herri asko batzeko aukera ematen du. Uste dut irtenbide handia eman ahal zaiola.

**Flipin Folk:** Batez ere herri-musika da eta hori dela eta, adin guztietako jendeak hartzen du parte. Azken finean, herrien artean ez dagoela mugarik erakusten du.

*-Folk musika oso zabala da. Zuek nola definituko zenukete zuek egiten duzuen?*

**Guztiak:** Folk ezberdinen fusioa egiten dugula esan daiteke. Izan ere, musika folkaren instrumentuak (galiziako gaita, alboka, mandolina, txi-

rula...) instrumentu modernoagoekin (gitarra elektrikoa, bateria, teklatura...) fusionatzen ditugu. Beti ere, musikaren oinarria folk-a izanik.

*-Zer dela eta folk talde batean aritzea, nondik datorkizue zaletasuna?*

**Adunia:** Azken finean norberaren erroetatik datorkigu. Batzuk gailekoak, beste batzuk euskaldunak, beste batzuk irlandar musika eta musika bretoaia gustoko dugu eta gero guk, gure erara nahasten ditugu guztiak.

**Flipin:** Gure ustez hemen ari garen guztion artean komunean duguna zera da, musika kultura hau galdu ez dadin lan egiteko gogoia daukagu.

**Nemon:** Bakoitzak bere esperientzia dauka. Batzuek betidanik egon dira musika tradizionalari lotuta.

**Nehalennia:** Gu Galiziako zentruko folklore taldearekin hasi ginen, gaita jotzen eta gero talde ezberdinak sortzeko aukera agertu zen eta jendearen gogoia ikusita aurrera egin genuen. Orain 4 talde ezberdin daude.

**Flipin:** Musika ezberdinak (Irlandakoa, Britainiakoa, leku ezberdinetakoak...) entzunez, musika mota horien guztien artean loturak bilatzen zoaz eta azkenean munduko alde bateko musika gustokoa duzu zein beste edozein leku-takoa ere.

**Adunia:** Ni hasi nintzenean



**PUB YOMY**

**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**



eta musika zelta entzuten has-  
ten zenean, ez zegoen inor tal-  
de bat osatzeko prest. Izan  
ere, duela 3-4 urtera arte ezin  
izan dut musikaren inguruan  
ezer egin.

**-Musikaren zein arlo da era-  
bakigarria da talde bat folk  
izendatzeko?**

**Nemon:** Zaila da erantzutea  
eta askotan, produktu ba-  
tean bihurtzeko jartzen diren  
etiketak izaten dira, baina argi  
dago folk-a tradizioetik dago-  
torrena dela.

**Flipin:** Edozein musika est-  
tilo egiten duen talde garaiki-  
de baten, eta guk egiten du-  
gun musikaren arteko ezber-  
dintasuna, oinarrian dago.

**Nemon:** Behin Galiziako  
folk-a zer zen galdetu nuen  
eta, gailego tradizionala oina-  
rri hartuta nahi dena egin dai-  
tekeela esan zidaten. Uste dut  
guk ere, folklore tradizionala  
oinarrian izanda, nahi eta ahal  
duguna egiten dugula.

**-Euskaraz, gazteleraz, gaile-  
goz, ingelesez, nola aritzen  
zarete?**

**Adunia:** Hemen ari garen  
taldeak gailegoz, euskaraz,  
asturieraz, gazteleraz abesten  
dugu.

**Flipin:** Azken finean, aho-  
tsa beste instrumentu bat da.

**-Folka musikaren barnean,  
komertziala da, erakartzen  
du jendea?**

**Adunia:** Ez dut uste kom-  
ertziala denik. Gutxiengo  
batentzat dela uste dut eta ge-  
ro eta esparru handiagoa har-  
tzen duela bere barnean pen-  
tsatzen dut.

**Nemon:** Aurreiritzi asko  
dago. Hasieran jende askok,  
folk hitza entzuten duenean  
gaita eta soinuarekin erlazio-  
natzten du, gero, musikaren



beste hainbat alor lantzen di-  
rela ikusten dutenean, iritziak  
aldatzen dira.

Izan daiteke komertziala  
zalantzarik gabe, hor dauzka-  
gu *Kepa Junkera*, *Hevia* be-  
zako taldeak oso ondo sal-  
tzen dutenak eta izugarri onak  
direnak. Baina alor komer-  
tzialari alor artistikoari baino  
garrantzi gehiago ematen  
zaionean, ahuldu egiten dela  
produktua uste dut.

**-Zeintzuk dira zuen iturriak?**

**Adunia:** Hasieran batez ere  
Irlandako musika eta musika  
bretoia. Gero gailegoak ber-  
piztu egin zuen folka, asko  
mugitu zen musika eta beste  
ikutu batzuk eman zizkion.

**Nemon:** Taldeko batzuk  
Galiziako "cantareira"-k izan

dituzte oinarri, beste batzuk  
Eskoziako, Errioxako eta bes-  
te hainbat lekutako musika  
entzun dute. Likore ezberdi-  
nak dastatzen joan gara.

**Flipin:** Heavyarekin hasi,  
Punkarekin jarraitu eta orain  
begira non gauden.

**-Momentu honetan Ermuan  
zenbat folk talde daude eta  
guztira zenbat ermuar ari  
dira bertan?**

**Guztiak:** Ermuan gaur  
egun, Nemon, Flipin Folk eta  
Nehalennia daude eta Eiba-  
rren Adunia Folk ari da hone-  
tan. Talde bakoitzeko 6 lagun  
gaude batzbestek. Hala ere,  
badira bi taldetan jotzen dute-  
nak ere, adibidez, Nemonen  
eta Flipinen edo Flipinen eta  
Nehalennian.

**-Zein da zuen adin tartea?**

**Guztiak:** 15 urtetik 42 urte-  
ra arteko jendea gaude talde  
horietan guztietan.

**-Badaukazue lanen bat ka-  
lean?/Asmorik ateratzeko?**

**Guztiak:** Ez du gutariko  
inork ezer kaleratu baina as-

moa hor dago eta aukera du-  
gun horretan aprobetxatu  
gingo dugu. Orain, jotzea  
eta ondo pasatzea da garran-  
tziatsua, gero zerbait graba-  
tzea suertatuko balitz, oso on-  
do.

**-Badago Ermuan folk-erako  
zaletasunik jende gaztearen  
artean?**

**Guztiak:** Bai zalantzarik  
gabe.

**-Zein da zuen publikoaren  
profila?**

**Nemon:** Ez dago profil ze-  
hatzik, urte eta era oso ezber-  
dineko jendearengana heltzen  
gara. Izan ere, kanta guztiak  
ez zaizkio jende guztiari gus-  
tatuko. Abesti batzuk batzuei  
eta beste batzuk beste batzuei.

**Adunia:** Jende ezberdin as-  
ko hartzen ditu barnean folk-  
ak. Heavy bati gustatu ahal  
zaio musika mota hau, zein  
jamaikar bati...

**Flipin:** Musika eta kultura  
bera barnean sentitzen duena-  
ren gustokoa dela uste dugu.

Alazne Aieslaran

**"hau guztia  
galdu ez dadin  
dihardugu"**

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
ERMUA



**ZUBIAURRE**

**ELEKTRIZITEA**

**INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA**

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61 Faxe. 943 17 42 17  
48260 ERMUA